

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



URUMEA

Hainbat errepide itxita, lanak medio

Gaur gauean itxi egingo da Astigarratik AP-8ra sarrera. Hemanin, bestalde, Portuko tunela itxiko da bihar, eta asfaltatze lanak egingo dira hiru gunetan.

BAILARAKO hainbat errepidetan aldaketak izango dira, konponketa lanak medio.

Gaur gauean bertan, itxi egingo da Astigarratik AP-8rako sarrera, gaueko 22:30etatik 04:30etara. Bitarte horretan, Astigarratik Behobiarantz joateko, Aldundiak gomendatu du A-15 hartzea Hernani aldera, eta norabidea aldatu eta berriro A-15ean sartzea, Donostiara. Bilbora, berriz, GI-41 errepidetik Martuteneko errotondaraino joan ahal izango da, eta segidan, GI-40tik ospitaletara igo, G-20 eta AP-8ra sartzeko.

Asfaltatze lanak, Hernanin Bestalde, bihar itxi egingo da Portuko tunela, Hernanin, inguruan sortzen diren mugikortasun arazoak konponzeko egiten ari diren aldaketak medio. Tunela ostiralera arte egongo da itxita, eta tarte horretan, Elizatxo auzora sartu eta atera ahal izateko, Oindi kaletik egin beharko da. Portu eta Osiñaga auzoetara joateko, berriz, bide bakarra Karabeletik izango da.

Era berean, asfaltatze lanak egingo dira bihar Txirritan, Zinkoenean eta Sagastialden, baina ez da errepidea moztuko. Bai, ordea, astearte eta asteazkenean, Iturregi kalea. ||

ASTIGARRAGA-HERNANI FESTAK

Soto del Realera Ergobiatik, Portutik pasata

Azken festa eguna dute gaur Portun; atzoko asto karrera edo paseoaren ondoren, Super Hren aldeko sagardo dastaketa izango da. Ergobian, krosa Pablo Vegak eta Esther Ramosek irabazi zuten.

GIRO beroa izan zuten atzo, zentzu guztietan, Ergobia eta Portuko festetan. Beroa, herriarren partehartzea, eta are beroagoa, eguraldia!

Ergobian Bernardo Arzallusen oroimeneko XII Kros Herrikoiarekin hasi zuten eguna, eta txapelak Soto del Realera joan ziren; Pablo Vega eta Esther Ramos izan ziren txapel-dun, gizonezkoetan eta emakumezkoetan. Bigarren, Aitor Remiaga eta Josune Alberdi, hurrenez hurren, eta hirugarren, Raul Gomez eta Maria Garcia. Herriko onenak, berriz, Asier Acinas eta Sara Gimeno izan ziren. Aurrerago, tortila lehiaketa, txaranga, bazkari, azikolari, dantzari eta zaldi probekin borobildu zuten eguna, eta musikarekin gaua.

Portu auzoan, jolasak izan ziren barra-barra, eta asto karreratik baino gehiago paseotik izan zuena, pailazoan aurretik.

Sagardoa gaur, nahi adina

Eta atzokoa nahikoa ez, eta gaur ere segi egingo du festak, bi auzoetan.



Ergobiako krosetako txapelak. Argazki guztiak: www.kronika.eus

Bietan, gainera, sagardoak hartuko du protagonismoa eguerdian. Portun, Super H elkarteak laguntzeko aprobeztatuko dute.

Arratsaldean pailazoak eta harrijasotzaileak izango dira Ergobian, eta Portun, herri kirolak, eta jaien amaiera. Ergobian segi egingo dute bihar ere, festan. ||



Lasterketari bolkot egin, eta paseatzea erabaki zuten hainbat astok.

ERGOBIAKO JAIK

10:30, Meza Nagusia Astigarragan.
11:30, Sagardo lehiaketa. Dastaketa 12:00etan hasiko da, eta sagardoa eta pintxoak izango dira.
16:30, Pailazoak. Tomaxen abenturak. *Espien eguna* antzetzuko dute, dantza eta animazioarekin.
Jarraian, Leizurik egindako izozkiak banatuko zaizkie haurrei eta Pasai txaranga joko du.
19:00, Harrijasotzaileak, Ergobiko 104kg-tako Hari Beltzarekin: Mikel Lopetegui *Urra*, Izeta IV, Xabier Peñagarikano, Iñigo Eizagirre, Inhar Urruzuno eta Gorka Etxeberria.
21:00, Kantu afaria Gaztelupeko Orfeon de la Castañarekin.

PORTUKO JAIK JAIK

08:00, Egunsentia, suzirikin.
09:30, Diana, txistulariekin.
11:00, Pelota partiduak.
12:00, Meza auzoko hildakoan alde.
12:30, Sagardo dastaketa solidarioa Super H laguntzeko, Miren eta Maialen trikitilariak alaituta.
13:00, XLV. Toka eta Bote Txapelketa; izenematea, 12:50ak arte.
14:30, Bazkaria, Euskal Parrillarekin.
18:30, Herri kirolak, azikoran, harrijasotzen, korrika eta arraunean: Iker Bizente, Jokin Eizmendi, Ibai Alba eta Hernani Arraun Elkarte kide bat, Mikel Larrañaga, Haimar Irigoien, Andoni eta elkarte beste arraunlari baten kontra.
Jarraian, Laiotz, zezen suzkoa eta traka.



ASTELEHENETIK
OSTIRALERA
7:30 - 13:00
15:15 - 19:00
LARUNBATEAN
9:00 - 13:00

943 55 21 31
ANDRE KALEA, 45
HERNANI

50 URTE BAINO GEHIAGO ZUEKIN! AHOIKULARITZA PROFESIONALA.

Dekoraziorako eta industriarako pinturak
Mota guztietako zoru-pinturak
Fabriken preskripzio teknika (10 urteko garantia)
Ahoikularitza teknika
Kolore berdintzeetan espezialista
Mota guztietako zorsen salmenta eta jartzea
3000 erreferentziatik gora paper pintatuetan
Biniloak
Sprayen ontziratzea
Etxez etxeko zerbitzua



Asegururik ba al duzu?

Deitu Orbegozora

24 orduko tfnoa.
943 33 10 20

www.funerariorbegozo.com

* Zerbitzu partikularrak eta seguru etxeekin
* Beilatoak
* Erranketak
* Lekualdatzak
* Eskalak, korreak...



HERNANI
ANDOAIN
ASTIGARRAGA
URNIETA
GOIZUETA

Zentrala - Latsunbe 7, Hernani



GAUR Laino dezente izango da, eta xirimiri egin dezake tarteka. Ipar-haizea ibiliko da eta tenperaturak behera egingo du. Freskatu egingo du.
Min.18° / Max.24°



BIHAR Tarteka eguzkia aterako bada ere, lainotuta egongo da gehienetan. Hego-haizea ibiliko da, hala ere, eta berotu egingo du. Baina arratsaldean, ipar-haizearekin, ekaizak ere jo dezake. **Min.18° / Max.28°**



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Odrizola** URNIETA Idiazabal, 18 **943 334014** **Gauetz:** **Aldabe** Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**



HERNANI VICTOR GOIKOETXEA

«Ez nuen harri-zulatzaille gogor bat irudikatu nahi, baizik eta, arina»

Meategietako harri-zulatzaillearen eskultura jarri du Victor Goikoetxeak Santurtzin. Bestalde, erakusketa ere jarria du Donostiako Basque Luxuryin.

ETENGABE lanean aritzen den «balio anitzeko» artista, «polibalentea» da Hernaniko tailean lan egiten duen Victor Goikoetxea. Momentu honetan Donostiako Basque Luxuryin erakusketa jarria du, eta laster Alicanteko Javea herrian jarriko du beste bat. Muralak egiten dituen margolari gisa ezagunagoa egin bada ere, etengabeko mugimendu horretan eskulturak ere egiten ditu, eta horrela, Santurtzin jarri zuen maiztan, harri-zulatzaillearena.

«Metalurgiar lotutako gunea izanik, burdina proposatu nien»

Lehendik ere Santurtzin beste-lako lan batzuk eginak zituen Goikoetxeak, eta horrelaxe jarri ziren berriro berarekin harremanetan. «Parke publiko batean harri-zulatzailleari omenaldia egin nahi zioten. Eskultura figuratiboa nahi zuten, baina desberdina. Metalurgiar lotutako gunea izanik, burdina proposatu nien. Nik ere, ez nuen harri-zulatzaille gogor bat irudikatu nahi, brontzezko ohiko eskulturen modukoa, baizik eta, arina. Parkean integratzea nahi nuen».

Horrela, 5.000 eta 7.000 arandela inguru erabili zituen, eta 20.000 puntutan soldatuta lortu zuen hiru metro eta erdiko eskultura. «Aurrena forma eman nion; gero, arandekin jantzi, eta su eman eta osatu nuen». Fundacion Hogar etorbidean dago jarria, harri-zulatzaillearen omentzen duen eskultura. XIX. mende



Victor Goikoetxea, Santurtzin jarritako harri-zulatzaillearen eskulturarekin.

Hernaniko udaletxeko Pleno aretoaren zaharberitze prozesuaren bigarren zatiri ekingo dio laster Goikoetxeak.

bukaeratik XX. mendean ia erdialdera arte meategietako langile preziatuak izan ziren harri-zulatzailleak, burdinezko bi metro luze zituzten makilarekin zulatzuten baitzuten harkaitza, gero bertan lehergailuak sartu eta leherketa kontrolatuekin behar zituzten

piezak lortzeko. Gaur egun herri kiroletan ikusi daiteke nolokoa izaten zen lan hau.

Datozen proiektuen artean, Hernaniko udaletxea

Lan gehiago ere baditu esku artean Goikoetxeak. Oraintxe, erakusketa jarria du Donostiako Basque Luxuryin, eta Alicanteko Javea herrian jarriko du beste bat, laster.

Eta bestelako lan gehiagoren artean, ziurtatu du 2020 hasieran ekingo diola Hernaniko udaletxeko Pleno aretoaren zaharberitze prozesuaren bigarren zatiri. ||

HERNANI G7

Kiroldegian lekua, larrialdi baterako

G7aren Biarritzeko goi-bilera dela eta, Hernaniko kiroldegian harrera gunea prestatu dute larrialdi zerbitzuek. Ez die eragingo ohiko erabiltzaileei.

UDALAK baieztatu du egun hauek ohe tolesgarriak eta koltxonetak jarri dituztela larrialdi zerbitzuek kiroldegian, eta DYA prest dagoela janaria eramateko. Baina honek guztiak ez diela eragingo kiroldegiko ohiko erabiltzaileei.

Hau guztia «badaezpadako plana» da, Biarritzen bildu den G7 goi-bileraren aurrean gertatu daitekeenari aurre egiteko. «Eusko Jaurlaritzak larrialdietarako plana martxan jarri du, eta horren barruan, SOS Deiak, Gurutze Gorria edota DYA batu

ditu. Biriaturko mugan arazoak sortuz gero, bertan ez atzera ez aurrera geratu daitekeen jendea hartzeko badaezpadako plana da. Beste gune batzuk ere badaude, Errenterian, Irunen, Pasaian, Oiartzunen eta Donostian, baina, badaezpada». ||

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

MAGDALENA MARTINEZ GARCIA

Besarkada bat familiari.

IXI ETA JONEN LAGUNAK
Hernanin, 2019ko abuztuaren 25ean

MAGDALENA MARTINEZ GARCIA

(Juan Antonio Estebanen alarguna)
Atzo hil zen, 71 urte zituela.

-Goian bego-

GINDIREN LAGUNAK
Hernanin, 2019ko abuztuaren 25ean

MAGDALENA MARTINEZ GARCIA

(Juan Antonio Estebanen alarguna)
Atzo hil zen, 71 urte zituela.

-Goian bego-

ZURE LAGUNAK ETA LANTOKIKO KIDEAK
Hernanin, 2019ko abuztuaren 25ean

I. URTEURRENA
Miguel Angel Larretxea Goñi

TXELO
2018ko abuztuaren 22an hil zen, Hernanin

Zein gogorra izaten ari den zuk utzitako hutsunearekin egunero bitiztea. Asko maite zaitugu.

ZURE FAMILIA
Hernanin, 2019ko abuztuaren 25ean

VIII. URTEURRENA
Miren Iasone Goñi Iriarte

2011ko abuztuaren 25ean hil zen, 43 urterekin

-Goian Bego

Argi bat itzali da hemen, lurtean, berri bat piztu da han, zeru ederrean, beti jarraituko duzu zure alaitasunarekin gure bihotzean

RAMON ETA NAHIA, BIXENTE ETA MAITE
Hernanin, 2019ko abuztuaren 25ean

VII. URTEURRENA
Alfonso Uriarte Martin

JAUNA
2012ko abuztuaren 26an hil zen, 65 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta.

Nere bihotzean

Emaztea: Mertxe Aranzadi San Policarpo; anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta etxeko denak.

Urteurrenoko meza, GAUR, IGANDEA, eguerdiko 12:00etan, SAN JOAN BATAIATZAILEA parroki elizan. Aldez aurretik, mila esker.
Hernanin, 2019ko abuztuaren 25ean

IRAGARKI MERKEAK

Emakume bat behar dugu jatetxe bateko sukaldean laguntzeko eta arraskako lanetarako. Kotxea beharrezkoa da. **Deitu: 943 33 13 87**

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura, ... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**